



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 18. HILABETEKO IRUZKINA

> 2009ko Abendua



GIPUZKOA



## KRISIA GIPUZKOAN ETA EUROPAR BATASUNEAN

### Aurkezpena

2009an barrena, ekonomia-krisiak Gipuzkoan izan duen eragina, lurralde garatu guztietan bezalaxe, nabarmena izan da, erreferentziako adierazle guztietan islatzen den moduan.

Jada 2008ko azken hiruhilekoaz geroztik, jarraipenerako funtsezko adierazle nagusiek (BPG eta enplegua) Gipuzkoako jardueraren erorketa islatzen dute, eta egoera hori 2009an barrena luzatu da.

2009ko lehen hilabeteetan, Gipuzkoako produkzio-jardueraren atzeraldi handienak izan dira, Europar Batasuneko herrialdeetan izandako bilakaerarekin bat etorritik, okupazioaren jaitsierarekin batera.

Ohar honetan, ekonomia-krisiak gaur egunera arte izan duen eragin alderatua aztertzen da, bai Gipuzkoan eta baita Europar Batasunean eta bere estatu kideetan ere.

### > BPGren uzkurdura Gipuzkoan EB-27ren batez bestekoa baino zertxobait baxuagoa da eta antzeko profila du

2009ko lehen hiru hiruhilekoetan Gipuzkoako BPG % 3,4 jaitsi da (batez bestekoan).

Gipuzkoako ekonomia-jardueraren atzeraldia erkidegoko batez bestekoa baino baxuagoa da, eta ez da 27 estatu kideetatik 21ek izandakoa bezain negatiboa izan. Izan ere, krisiak Gipuzkoako ekoizpenean izan duen eragina estatu kide nagusi guztiena (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia eta Espainia, guztira erkidegoko BPGren % 72eko ekarpena egiten dutenak) baino arinagoa izan da, Frantziaren kasuan izan ezik.

Edonola ere, atzeraldiaren eraginak desberdintasunak izan ditu Batasuneko estatuen artean. Polonia izan da jardueraren hazkundea, murrizta bada ere, jasan duen herrialde bakarra; gainerakoan, herrialde gehienetan (27tik 18tan) atzeraldia % 1 eta % 6 artean kokatzen da.

Bost herrialdeetan jaitsiera bizia izan da (% 6 eta % 9 artekoa): Hungaria, Errumania, Irlanda, Finlandia eta Eslovenia; eta Baltikoko hiru herrialdeetan izugarria izan da, % 15 baino handiagoa.

Bestalde, Gipuzkoako produkzioaren joeraren profila europarraren oso antzekoa da: eragin negatibo nabarmena 2009ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko areagotuz, eta 2009ko bigarren hiruhilekoan motelduz joan da, hirugarren hiruhilekoan jaitsiera geldituz.

Krisiaren eraginaren beste neurketa bat 2009ko hazkundearen eta aurreko hirurtekoaren arteko alderaketarekin eskura daiteke. Horrela, joera-aldaketa izendatu duguna eskuratzen da, produkzio-krisiaren sakontasunaren neurketa gisa.



Testuinguru honetan, Gipuzkoako ekonomiaren joera-aldaketa Batasuneko batez bestekoaren berdina da (% -7), Gipuzkoan aurreko hirurtekoan hazkunde-erritmoa handiagoa izan baitzen. Hala ere, eragin edo joera-aldaketa hau 27 estatu kideetatik 17tan izandakoa baino baxuagoa da.

	BPGren aldaketa (%)		
	Gaur egungoa	Joera-aldaketa	Aurreikuspenak
<b>EB-27</b>	<b>-4,7</b>	<b>-7,0</b>	<b>0,7</b>
Polonia	1,3	-4,7	-0,5
Zipre	-1,0	-5,1	0,1
Grezia	-1,1	-4,8	-0,3
Malta	-2,1	-5,3	0,7
Frantzia	-2,9	-4,5	1,2
Portugal	-3,4	-4,5	0,3
<b>GIPUZKOA</b>	<b>-3,4</b>	<b>-7,0</b>	<b>0,1</b>
Belgika	-3,8	-6,0	0,6
España	-3,8	-6,6	-0,8
Austria	-4,2	-7,2	1,1
Txekiar Errepublika	-4,3	-9,4	0,8
Holanda	-4,5	-7,5	0,3
Bulgaria	-4,6	-10,8	-1,1
Eslovakia	-5,3	-13,7	1,9
Danimarka	-5,4	-6,6	1,5
Erresuma batua	-5,4	-7,4	0,9
Luxenburgo	-5,5	-9,5	1,1
Italia	-5,5	-6,4	0,7
Alemania	-5,8	-8,1	1,2
Suedia	-5,8	-8,0	1,4
Hungaria	-6,9	-7,8	-0,5
Errumania	-7,3	-14,1	0,5
Irlanda	-8,1	-10,9	-1,4
Finlandia	-8,5	-11,9	0,9
Eslovenia	-8,8	-14,2	1,3
Estonia	-15,6	-20,1	-0,1
Lituania	-15,6	-22,4	-3,9
Letonia	-18,4	-24,3	-4,0

Iturria: Eurostat eta Eustat, aurreikuspenak izan ezik

Oharra: Gaur egungoa: 2009ko lehen hiru hiruhilekoetako urtetik urterako tasaren bataz bestekoa

Joera-aldaketa: egungo balorearen eta 2006-2008 hirurtekoaren batez besteko hazkunde-tasaren arteko desberdintasuna

Aurreikuspenak: 2010ean BPGren hazkundeari dagozkionak (udazkena, Europako Batzordea eta Eusko Jaurlaritzza, Gipuzkoarako datua, Autonomia Erkidegoari dagokiona).



### > Gipuzkoarako aurreikuspenak egonkortzeko joera adierazten dute

Gipuzkoako BPGren bilakaerari buruzko 2010eko aurreikuspenak (erreferentzia gisa Autonomia Erkidegoko aurreikuspen ofizialak hartuta), % 0,1 eta % 0,7ko hazkundera izango dute, hurrenez hurren.

Zortzi herrialdetan irteera argia aurreikusten da, % 1 eta % 2 arteko hazkunderekin: Eslovakia, Danimarka, Suedia, Eslovenia, Alemania, Frantzia, Austria eta Luxenburgo.

Aurkako muturrean, produkzioaren jaitsierak % 1 gaindituko luke lau herrialdetan: Letonia, Lituania, Irlanda eta Bulgaria. Espainia talde honetatik gertu kokatuko litzateke (% -0,8), aurreikuspen negatiboa duen herrialde handi bakar gisa nabarmenduz.


### > Gipuzkoako enpleguaren uzkurdura, Europar Batasuneko bano handiagoa

Ekonomia-krisiak eragin handia izan du Gipuzkoako enpleguan. Aztertutako aldiaren biztanleria okupatuaren jaitsiera % 4,7 izan da. Europar Batasunean enpleguak Luxenburgon, Polonian eta Alemanian izandako jarrera positiboa nabarmentzen da. Bestalde, beste zortzi Estatuak neurrizko jaitsiera izan dute (% 1 baino txikiagoa); horien artean, Frantzia eta Italia daude.

Halaber, krisiak Gipuzkoako enpleguan izan duen eragina, joera-aldaketaren adierazlea kontuan hartuta neurtutakoa, Batasun osoan izandakoa baino biziagoa da.

Urte honetarako aurreikuspenek Gipuzkoan enplegua murriztuko dela iragartzen dute, Europaren antzera; beraz, aurreko urteari dagokionez jaitsiera arindu egingo da.







	Enpleguaren aldaketa (%)		
	Gaur egungoa	Joera-aldaketa	Aurreikuspenak
<b>EB-27</b>	<b>-1,6</b>	<b>-3,0</b>	<b>-1,2</b>
Polonia	0,8	-3,0	-1,1
Zipre	-0,5	-3,0	-0,1
Grezia	-0,9	-2,1	-0,8
Malta	-0,6	-2,9	0,3
Frantzia	-0,8	-1,8	-0,9
Portugal	-2,5	-2,8	-0,4
<b>GIPUZKOA</b>	<b>-4,7</b>	<b>-5,7</b>	<b>-1,3</b>
Belgika	-0,3	-1,9	-1,4
España	-6,9	-8,7	-2,3
Austria	-0,9	-2,4	-0,7
Txekiar Errepublika	-1,1	-3,1	-1,4
Holanda	-0,3	-2,0	-2,1
Bulgaria	-1,1	-4,2	-1,3
Eslovakia	-1,8	-4,2	0,0
Danimarka	-2,3	-4,1	-2,1
Erresuma batua	-1,6	-2,4	-0,9
Luxenburgo	1,8	-2,4	-1,3
Italia	-0,9	-1,7	-0,4
Alemania	0,1	-0,9	-1,9
Suedia	-2	-3,6	-1,8
Hungaria	-3,8	-3,9	-0,8
Errumania	..	..	0,8
Irlanda	-7,9	-10,2	-3,9
Finlandia	-2,5	-4,4	-2,5
Eslovenia	-1,6	-4,1	-2,0
Estonia	-9,4	-11,6	-2,5
Lituania	-6,4	-7,8	-2,4
Letonia	-12,5	-15,5	-5,6

Iturria: Eurostat eta Eustat, aurreikuspenak izan ezik.

Oharra: Gaur egungoa: 2009ko lehen hiru hiruhilekoetako urtetik urterako tasaren bataz bestekoa

Joera-aldaketa: egungo balorearen eta 2006-2008 hirurtekoaren batez besteko hazkunde-tasaren arteko desberdintasuna

Aurreikuspenak: 2010ean BPGren hazkundeari dagozkionak (udazkena, Europako Batzordea eta Eusko Jaurlaritzza, Gipuzkoarako datua, Autonomia Erkidegoari dagokiona).







### > Azken urteko produktibitatearen igoerak aurreko urteetako joera luzatzen du

Fase ekonomiko hedakorrean, Gipuzkoan produkzioa eta enplegua hobetzearekin batera, biak Batasunari dagokiona baino kopuru handiagoan, enpleguaren produktibitatea europarraren batez bestekoa baino zertxobait handiagoa izan da.


Hain zuzen ere, 2002-2008 zazpiurtekoan enpleguaren produktibitatea urteko % 1,3 igo egin da Gipuzkoan, portzentajeko hamarren bat EB-27ren gainetik.

Produktibitatearen bilakaera berri hau desberdina da Estatu kideen arabera: Errumaniaren % 6,9tik Ziprerren % 0,5era. Gipuzkoako erdibideko lekuan kokatzen da, Alemania bezalako herrialde aurreratuenen antzeko hazkundea duela.



Bilakaera honi lotuta, Gipuzkoako produktibitateak erraz gaintzen du Batasunaren batez bestekoa, % 22an kokatzen dena. Soilik zazpi Estatu dituzte (2008an) Gipuzkoarenak baino produktibitate-adierazle handiagoak: Luxenburgo, Irlanda, Danimarka, Belgika, Frantzia, Finlandia eta Suedia.

Prezio arruntetan neurtutako adierazle honek Gipuzkoako ekonomiak eta enpleguak izandako hobekuntza nabarmena islatzen du, are gehiago okupazioaren inguruko igoera esanguratsuak ere izan dituelako. Hala ere, azken urtean moteldu egin dira, aurretik islatu den moduan.



	Joera berriak (2002-2008)			BPG/enplegua-2008 EB=100
	BPG	Enplegua	BPG/enplegua	
<b>EB-27</b>	<b>2,0</b>	<b>0,8</b>	<b>1,2</b>	<b>100</b>
Polonia	4,6	1,5	3,1	40,1
Zipre	3,5	3,0	0,5	79,2
Grezia	3,9	1,4	2,5	93,1
Malta	2,3	1,3	1,0	62,8
Frantzia	1,6	0,7	0,9	133,7
Portugal	0,8	0,1	0,7	57,0
<b>GIPUZKOA</b>	<b>3,0</b>	<b>1,7</b>	<b>1,3</b>	<b>122,3</b>
Belgika	2,0	1,0	1,0	137,1
España	3,4	2,3	1,1	97,2
Austria	2,4	0,8	1,6	121,9
Txekiar Errepublika	4,5	1,0	3,5	52,1
Holanda	1,9	0,4	1,5	121,9
Bulgaria	6,0	2,6	3,4	18,0
Eslovakia	6,6	1,4	5,2	46,6
Danimarka	1,3	0,7	0,6	144,4
Erresuma batua	2,3	0,8	1,5	109,9
Luxenburgo	3,9	3,3	0,6	350,4
Italia	0,9	0,7	0,2	119,3
Alemania	1,3	-0,1	1,4	112,4
Suedia	2,6	0,5	2,1	127,7
Hungaria	3,2	0,0	3,2	48,2
Errumania	6,2	-0,7	6,9	26,8
Irlanda	4,3	2,7	1,6	157,6
Finlandia	2,8	1,2	1,6	130,1
Eslovenia	4,5	1,3	3,2	65,7
Estonia	6,5	1,5	4,9	43,6
Lituania	7,5	1,8	5,6	37,9
Letonia	7,2	2,2	4,9	37,8

Iturria: Eurostat eta Eustat. Aldiaren batez besteko aldaketa.  
 BPG/enplegua (2008) euro arruntetan (EB-27=100)